



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91

Egaña, Murua eta Peñagarikano lehenengo hirukote finalista

Bere buruarekin fidatuta, txapeldun izan daitekeela erakutsi zuen atzo zarauztarrak

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91ko lehenengo hiru finalisten izenak ezagutarazi ziren atzo, jendez leporaino zegoen Tolosako Beotibar pilotalekuan. Bertan jokatuak finalerdiko saiotik Andoni Egaña, Iñaki Murua eta Anjel Mari Peñagarikano Donostiako belodromorako txartel banarekin irten ziren.

JOXAN OIZ / TOLOSA

Martxeli Sagastumek jarritako gaien arabera kantatu zuen lehen finalerdiko zortzikoteak. Goizeko 11.30etan hasitako saioak jendetza zen Beotibarko entzulegoa asetu zuen. Ikusmin handiaz espero zen lehiaketak bertso on asko izan zituen.

Egaña-Murua, Mendizabal-Olaso, Peñagarikano-Lertxundi eta Telleria-Soroazabal ofizio bikoteekin hasitako ihardunaldiak maila ederra izan zuen amaierako agurrak arte. Egaña, zigarro purua lagun, bikain aritu zen. Txapeldungai ikusi zuen burua eta hala agertarazi nahi izan zien bildutako guztiei. Zartailuaren zigorrak gogaitu eta oihanera itzuliko zen lehoiaren gartzelakoan, puntaren puntan dagoela erakutsi zuen.



Iñaki Murua bikain ihardun zuen baina Andoni Egañak are bikainago.

JUANXO EGAÑA

Murua patxadaz baina maisuki ere saioan zehar ereindako uzta ederraren fruituak jaso zituen eta bigarren sailkatu zen. Besteen iharduera, laburrean aipatzearen, Peñagarikano parean zuen aldeko piloak nahi izango zukeen baino estuago ibili zen, potoak galdu zuen Soroazabal, ezta-riak Lertxundi, Olasok txapelketa-

ko errebelazioa dela gogorazi zuen, Mendizabal bikain ere bai eta Telleria airoso irten zen.

SOROZABAL TELLERIA LERTXUNDI: ADIO Epaimahaikideek puntuetan neurtu zuten guzti hau eta txapelketa honetan derri gorrezko bihurtu diren txistu eta txaloen artean honako sailkapena osatu zuten: Egaña (526,5 puntu), Murua (513,5), Peñagarikano (507,5), Mendizabal (490,5), Olaso (482), Soroazabal (481,5), Telleria (476) eta Lertxundi (473,5).

Puntuaketak honako ondorioak ekarri ditu: Egaña, Murua eta Peñagarikano zuzenean pasa dira finalera; Mendizabal eta Olasok bihar Oñatin jokatu den bigarren finalerdiko puntuaketaren arabera izango dute txartela; eta, azkenik, Soroazabal, Telleria eta Lertxundi lehia- ketatik kanpo daude dagoeneko.

Bihar Oñatin plazaratuko da azken finalerdia. Goizeko 11.30etatik aurrera, Euskitze, Lizaso, Sarasua, Loidisalexe II, Maia, Zeberio, Sasiain eta Olalde ihardungo dute Zubikoa kiroldegian.

Tolosako emaitzak

Egaña.....	526,5
Murua.....	513,5
Peñagarikano.....	507,5
Mendizabal.....	490,5
Olaso.....	482
Soroazabal.....	481,5
Telleria.....	476
Lertxundi.....	473,5

Klasifikatuak: Egaña, Murua eta Peñagarikano.

Puntuaketaren zain: Mendizabal eta Olaso.

Kanporatuak: Soroazabal, Telleria eta Lertxundi.

Andoni Egaña

Gartzelako gaia: Zartailuaren menpean bizi izandako lehoia zara, zigor guztiak alde batera utzi eta oihanera itzultzen zara.

Domadoreak esana egin
lehoiaren erregela
tipoa zer zen bihotz gabea
gogorra bezain ergela
garai hartako oroitzapenek
ez naute asetzen bela
oraintxe nago horrela
hau da suete itzela (bis) libre ta
aske oihan batean
animaliak bezela
pena bat daukat mundu honetan
gizonen menpe gaudela.

Orain errega gertatuko zait
arnas garbia hartzia
oihan hontako xulo guztitan
nahi dedan eran sartzia
gizonezkoen eskabutza(h)ura
ez daukat guztiz aiantzia
askatasun antsia
hona nere irrintzia. (bis)
Gauza bakarra eskatu nahi det
badu bere garrantzia
duintasunez bizi ez tzana
duintasunez hiltzia. (bis)

Martxeli Sagastumek emandako bukaerarekin osatutako bertsoa:

Sortu zenean gehientsuenok
izan genuen parte
Jaurlaritzatik ez zaio heldu
dirulaguntza fuertea
herri xumean babesa eta
gainera kriston suertea
EGUNKARIAK hola bete du
bere lehenengo urtea.



OLASO aiarra ederki aritu zen, baita erakutsi ere txapelketa honetan izan dituen emaitza onak ez direla kasualitatea izan. Ez du zuzeneko txartela lortu eta bihar Oñatin jokatu den saioaren emaitzei itxaron beharko die. Hemendik aurrera, litekeena da Martin Rezabal 'Olaso' izen-deiturak plazaz plazako saioetako karteletan sarriago ikustea. Gainera, jendearen aurrean 'a-to-mar-por-sa-ko' bezalako errimak egiten badakizkiela agertarazi du Aiako mutilak.



**GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA 91**

OÑATI

ABENDUAK 8 ♦ «EUSKITZE»/J. MAIA

IGANDEA ♦ S. LIZASO/X. ZEBERIO

GOIZEKO 11,30EAN ♦ J. SARASUA/J.A. SASIAIN

ZUBIKOA pilotalekuan ♦ «LOIDISALEXE II»/«OLALDE»

FINALERDIAK